



[www.cafmobility.com](http://www.cafmobility.com)



# 2024. URTEKO EMAITZAK

2024ko otsailak 26

# LEGE OHARRA

## DOKUMENTU HONEK INFORMAZIO-HELBURUA DU SOILIK.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe.

# AURKIBIDEA

1. 2024KO DATU AIPAGARRIENAK
2. FINANTZA INFORMAZIOA
3. BURTSAKO INFORMAZIOA
4. JASANGARRITASUNA
5. AURREIKUSPENAK
6. ERANSKINAK







1

# 2024KO DATU AIPAGARRIENAK

# 2024RAKO IRAGARRITAKO AURREIKUSPENAK GAINDITU DIRA

## / 2024KO AURREIKUSPENAK

Book-to-bill



≥1  
Kontratazio selektiboa

Salmentak



+% 10 ingurukoa 2023 urtearekiko

EBIT  
Emitza garbia



Errentagarritasunaren hobekuntza  
2023 urtearekiko

Dibidendua



Emitzen bilakaerarekin bat dator

FZG/EBITDA ratioa



Egonkortasuna 2023 urtearekiko

JASANGARRITASUNA



Isurpenen murrizketa: egonkortasuna  
ESG ratioen kalifikazioa hobetuta

## / 2024KO DATU ERREALAK

- BtB=1,1
- Profila epe ertainera begirako helburuekin lerrokatuta ✓

- +% 10 vs 2023 ✓

- EBIT: +% 21 vs 2023 [EBIT marjina=% 5,1 vs % 4,7 (2023)]
- Emitza garbi egozgarria: +% 16 vs 2023 ✓

- DPA: +% 21 vs 2023 [1,34 €<sup>(1)</sup> vs 1,11 € (2023)] ✓

- 0,7x vs 0,9x (2023) ✓

- 1&2 Irismena: % 29,3 eta 3 irismena<sup>(2)</sup>: % 33,1
- MSCI kalifikazioa hobetu da (A → AA) ✓

<sup>(1)</sup> 2024ko ekitaldira zordundutako akzio bakoitzeko dibidendu gordina 2025eko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzearen mende dago.

<sup>(2)</sup> Produktuaren erabilera

# TALDEAREN EPE LABUR ETA ERTAINERA BEGIRAKO JARDUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK BETE DIRA

ARRETAGUNE KOMERTZIALA



## TRUST IN MOTION

## / FUNTSEZKO MERKATUETAN INDARTZEA

### Hazkundera sendotu da Frantzia

Kontratazio adierazgarria (>500M€) trengintzaren segmentuari (SNCFren >400M€-ko zabalkuntza barne hartzen du) eta autobusen segmentuari (hidrogeno bidezko autobusen eta trolebussen eskariak) lotuta.

Urteko salmentak kontsolidatu dira >400M€.

### Espainiaren posizioa sendotu da

Madrilgo Metroak 2024an lizitatutako bi loteak CAFi esleitu dizkio (>800M€).

CAFentzat bezero historikoa izan denak konfiantza berritu du (Madrilgo Metroaren gaur egungo flotaren >% 80 iraganean CAFek hornitutako trenak osatzen dute).

### Protagonismoa Italiako hiriko mugikortasuna modernizatzeko lanetan

Urtean 500M€ inguruko kontratazioa, bi segmentuetan:

- Erromak, Boloniak eta Palermok tranbiak kontratatu dituzte.
- 300 autobus baino gehiago kontratatu dituzte Erromarako.

### Autobusen lehen kontratua Amerikarako

**DIRU SARREREN ERREKURRENTZIA FUNTSEZKO MERKATUETAN**

# TALDEAREN EPE LABUR ETA ERTAINERA BEGIRAKO JARDUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK BETE DIRA

## SEINALEZTAPENA

### / AITZINDARIAK TREN ARLOKO AUTOMATIZAZIOAN

Herbehereetan, NS operadorearekin elkarlanean, ATO (Treneko Operazio Automatikoa) ezarri da

2 jarduera-lerro:


1/ ATO sistemaren proba zorrotzak GoA2n Herbehereetako trenbide-sare osoan (>40.000 km eginda)

2/ Remote/Autonomous shunting: urruneko operazioak eta operazio automatizatuak biltegiko ingurune errealean (GoA1, GoA2, GoA4arte-gidaririk gabe)



Osloko Tranbiaren operadorearekin elkarlanean, urruneko kontrolerako eta gidatzerako gaitasunak arrakastaz erakutsi dira

Osloan dagoen ibilgailu bat denbora errealean urrunetik operatzea, Berlindik, tranbia mailako automatizaziora bidean, ibilbide-orriaren lehen mugarri gisa.



Tren autonomora begira, aurrerapausoa

**GARRANTZI HANDIKO LORPEN TEKNOLOGIKOAK**

### / SEINALEZTAPEN NEGOZIOA HAZI DA

CBTC OPTIO sistema aurkeztu da Innotrans azokan

CAFen CBTC seinaleztapen-sistema da OPTIO.

Teknologia malgua eta eskalagarria, **metropoli eremuko operazioetara** bideratuta.

Europan eta Amerikan aurkeztua.



#### Dibertsifikazio geografikoa

Seinaleztapenerako esparru-akordioan sartu da **Erresuma Batuan**: CAF 2. mailako ERTMS seinaleztapen digitaleko kontratua (2. lotea) sinatu duten 4 erakundeetako bat da. Proiektu horren aurrekontua 3.500M€ ingurukoa da eta 10 urteko iraupena izango du.

Seinaleztapenaren merkatura (behin eta berriz inbertsio handia egiten den merkatua) sartzea eta bertan posizionatzea.

#### Dimentsioa

Zorroatik,  
2024/12/31n

**+% 28**

vs 2023/12/31

2024ko salmentak

**+% 37**

vs 2023ko FY

**Estatuko eta nazioarteko merkatuko posizioaren indartzea**

**Eskala handitzen**

**TALDEARI GERO ETA EKARPEN HANDIAGOA EGITEKO**




# TALDEAREN EPE LABUR ETA ERTAINERA BEGIRAKO JARDUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK BETE DIRA

## AUTOBUSAK


### / EUROPA MAILAKO LIDERGOA ETA HAZKUNDEAREN ETA ERRENTAGARRITASUNAREN HOBEKUNTZAREN JOERA MANTENTZEA

Solarisek urtearen azken zatian aparteko jarduna izan ostean...

Salmenta-errekorra eta emaitzaren susperraldi handia lortu ditu Solarisek 2024an, eta 2025ean ere jarraitzea aurrez ikusi da



### Solarisen lidergoa zero isuriko hiri-autobusen Europako merkatuan<sup>1</sup>



### / ENTZUTE HANDIKO AITORTZAK EUROPAN

#### Urbino 18 hydrogen

2025. urteko autobusa



#### Urbino 12 electric

2025eko autobus jasangarria



#### Urbino 18 electric



Baterien pasaportedun munduko lehen autobusa

### / GEOGRAFIA ETA PORTFOLIO MAILAKO HEDAPENA

#### Hiri-autobusen lehen kontratua Ipar Amerikan

Funtsezko mugarría AEBko eta Kanadako zero isuriko hiriko autobus merkatuan sartzeko ekimen estrategikoari dagokionez

#### Europako hiriarteko autobus segmentuan hazteko beste ekimen bat

Arreta produktuaren garapenean eta arretagune komertziala 2023-2024an

Zero isuriko proposamen eskusiboa

Abian dauden eskaintza, epe laburrera begira esleí daitezkeenak

**NEGOZIO LERRO BERRIAK EMAITZEI DAGOKIENEZ BILAKAERA POSITIBOA IZATEKO AURREIKUSPENAK DITUEN EUROPA MAILAKO**


<sup>1</sup>Iturria: DVV Media Group. Guztira erregistratutako autobus kopurua: 11.945. Horietaik, 5.732 autobus dira zero isurpenekoak. MMA > 8t. EB27 (Erresuma eta Irlanda kanpoan utzita, Solarisek ez baitu herrialde horietan partaidetzarik), Norvegia eta Suitza.



# TALDEAREN EPE LABUR ETA ERTAINERA BEGIRAKO JARDUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK BETE DIRA

## JASANGARRITASUNA

### / FINANTZAKETA BERDE ETA JASANGARRIAREN ESPARRUA



2024ko 1HHan argitaratua

Bigarren baten iritziaren hornitzaile batek balioztatua.

Esparru horri esker, CAFek honako hauek egin ahal izango ditu:


- CAFek erabiltzen dituen finantza-produktuak kalifikazio berdearekin edo jasangarriarekin izendatzea eta, **horren bidez, eskaera modu potentzialean handitzea.**
- **Zorrenen kostua zertxobait gutxitzea.**
- Ekonomia deskarbonizaturako **trantsizioan enpresak duen lidergoa** baieztatzea merkatuaren aurrean.

850M€

Esparruaren baitan 2024an egituratutako edo gauzatutako finantza-eragiketen bolumena da (abalak eta maileguak)

## JASANGARRITASUNEN ESTRATEGIAREKIN

### / JASANGARRITASUNEN GIDA PLANA



2024ko abenduan argitaratua

Mugikortasun jasangarrian liderrak izan nahi dugu, klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta gure interes-taldeekin konprometuta, gizarteari aurrera egiten laguntzeko eta planetaren ongizatea lortzeko.

Plan honek garatzen du helburu hori lortzeko gure **ibilbide-orria**. Gainera, gure jardueran lehenetsia duten jasangarritasuneko gaiak kudeatzeko gure ikuspegia ere jasotzen du.

## 10 EKIMEN ETA 11 HELBURU ESTRATEGIKO



### / CSR ZUZENTARAUAREN ARABERAKO JASANGARRITASUN TXOSTENA


Hirugarren independente batek 2024ko Jasangarritasun Txostena egiaztatu du, Jasangarritasun Korporatibo arloko Informazioari buruzko Zuzentarauak (CSR) xedatutakoa betez. Aipatutako egiaztatze-lan horrek, CNMVk eta ICACek hala gomendatuta, 11/2018 Legeak xedatutako alderdi osagarriak ere jasotzen ditu.

## GARDENTASUN HANDIAGOA ETA INFORMAZIOAREN BANAKAPENA

# TALDEAREN EPE LABUR ETA ERTAINERA BEGIRAKO JARDUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK BETE DIRA

## / CAF-EN WEBGUNE BERRIA

### Erakundearen webgunea



[www.cafmobility.com](http://www.cafmobility.com)

- Domeinuaren aldaketa cafmobility.com-era
- Diseinu bisual modernoa eta nabarmen hobetu den erabiltzaile-esperientzia
- CAFeko negozio guztiak biltzen ditu CAF markaren pean

### Akziodunen eta Inbertitzaileen atala



<https://www.cafmobility.com/eu/akziodunak-inbertsoreak/>

- Inbertitzailearen agenda osoagoa
- Harpidetza-zentroa
- Ekonomia eta finantza arloko informazioa eta akzioaren kotizazioari buruzko informazioa aztertzeko tresna interaktiboa
- Inbertsioen kalkulagailua
- Factsheet

**KOMUNIKAZIOA SENDOTZEA WEBGUNEAREN BIDEZ**





**/ 2**  
**FINANTZA**  
**INFORMAZIOA**



## KONTRATAZIOA ESKARI ZORROA SALMENTAK

4.707 M€  
-% 1

vs 2023ko FY

14.695 M€  
+% 3

vs 2023/12/31

4.212 M€  
+% 10

vs 2023ko FY

## EBIT

216 M€  
+% 21

vs 2023ko FY

## EBIT mj

% 5,1  
ehuneko +0,4 puntu

vs 2023ko FY

## EMAITZA GARBI EGOZGARRIA

103 M€  
+% 16

vs 2023ko FY

BPA/DPA<sup>(1)</sup>

3,02€/1,34€

## Cash flow-a

72 M€

## FZG

226 M€

## FZG/EBITDA

0,7x

## JASANGARRITASUNA

- Isurien murrizketa (1&2 irismena: % 29,3 eta 3 irismena<sup>(2)</sup>: % 33,1)
- Jasangarritasun Txostena Europako CSRD zuzentarauaren arabera izan da, eta hirugarren independente batek egiaztatu du.

Urteko kontratazio-helburua lortu eta gainditu egin da. *Book-to-bill*=1,1.

Eskarien zorroaren maximo historikoa. Horrek Taldearen hazkunde-joera bermatuko du

Salmentetan maximo historikoa, marjinaren aurrerapena eta emaitzen hobekuntza nabarmena Gero eta ordainketa handiagoa akziodunari

Kutxa positiboa sortu da 2024an, bigarren seihilekoan izandako sendotasunari esker

Balantze sendoa. Palanka-ratioa gutxitu da

Aurrerapen esanguratsuak 2026ko Plan Estrategikoaren jasangarritasuneko ardatza garatzeko garaian


## 2025ERAKO AURREIKUSPENEI DAGOKIENEZ, 2026KO PLAN ESTRATEGIKOAN JASOTAKO HELBURUAK PIXKANAKA BETETZEN JOANGO DIRA

<sup>(1)</sup> 2024ko ekitaldira zordundutako akzio bakoitzeko dibidendu gordina 2025eko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzearen mende dago.


<sup>(2)</sup> Produktuaren erabilera

# URTEKO KONTRATAZIO HELBURUA LORTU ETA GAINDITU EGIN DA


/ GUZTIRA (M€)



/ KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%) 2024



/ KONTRATAZIOAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%) 2024



	2023	2024
<b>Trenak</b>	<b>3.488</b>	<b>3.752</b>
<b>Autobusak</b>	<b>1.287</b>	<b>955</b>
<b>Guztira</b>	<b>4.775</b>	<b>4.707</b>

**Kontratazioa bizkortu egin da 2024ko 4HHan** eta urteko kaptazioaren erdia baino gehiagoko ekarpena egin du.

2024ko 4HHan **trenen segmentuak izandako kontratazio handia** nabarmendu behar da. Kontratazio horrek, besteak beste, honako hauek jasotzen ditu:

- Tren-ibilgailuak Espainian, Frantzia, Italian, Herbehereetan, Kolonbian eta Txilen.
- Sistema integralak Mexikon.
- Mantentze-lanetarako kontratuak berriro dituzte hainbat geografian (horien artean Espainia nabarmendu behar da) eta kontratazio berriak egin dira Ekialde Ertainean.

**Btb=1,1** Talde osoan, 2024an.

Btb=1,1 trenen segmentuan

Btb=1,0 autobusetan

2024ko tren-ibilgailuen kontratazioaren % 40 bezeroak gauzatutako aukeretatik eratorri da. Horrek agerian uzten du **konfiantza eta asebetetze** maila handia dela.

**> 7.000M €** gaur egungo zorroan jasota ez dauden eta bezeroak etorkizunean esleiri ditzakeen aukeratan.

Geografien araberako banaketari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da **Espainiaren** ekarpena; izan ere, CAF aurretik ezagutzen zuen bezero batek (Metro Madrid) lizitatutako bi loteren esleipenduna izan da (800M€ inguru).

Egonkor jarraitzen du **CAFeko pipelinea osatzen duten proiektuen bolumen historikoak**.

## 2024ko 4Hhan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak - TRENEN ARLOA

### / ITALIARAKO TRENAK

#### BOLONIARAKO TRANBIAK

- 5 moduluko 33 **Urbos** tranbiaren oinarri-kontratua.
- OESS (On Board Energy Storage Systems) sistemarekin ekipatutakoak katenariarik gabe zirkulatzeko.
- Esparru-kontratuak 60-72 tranbia arteko **aukera osagarriak** jasotzen ditu eta, gainera, 4 urtez, unitateen mantentze-lana barne hartzen du.
- **CAFek Bolonian 2 urtean irabazitako bigarren kontratua** da (autobusa eta tranbia).

#### PALERMORAKO TRANBIAK

- **Bezeroak zabalkuntza-aukera aktibatu** du.
- 14 tranbia.
- Hornikuntza gehienez beste 21 tranbiarekin **handitzen jarraitzeko aukera** dago.

200M€  
inguru



### / METROAK ESPAINIARAKO, HERBEHEREETARAKO, TXILERAKO ETA KOLONBIARAKO

#### MADRILERAKO METRO UNITATEAK

- Galibo estuko 40 tren (bakoitza 6 kotxekoa).
- GoA2n operatzeko aukera dute, eta GoA3ra arteko garapena izan dezakete.
- CAFek lehendik ezagutzen zuen bezeroak **berriro ere jarri du enpresan konfiantza**.
- Kontratuak **etorkizunerako aukera osagarriak** jasotzen ditu.

#### AMSTERDAMERAKO METRO UNITATEAK

- **Bezeroak zabalkuntza-aukera aktibatu** du.
- 3 kotxeko 13 unitate.
- Hornikuntza gehienez beste 17 unitatearekin **handitzen jarraitzeko aukera** dago.

#### TXILEKO SANTIAGORAKO METRO UNITATEAK

- 5 kotxeko 6 unitate, GoA4 gidatze automatikoko sistema dutenak.
- CAFek **lehendik ezagutzen zuen bezeroarekin** lortutako kontratu berria.

#### MEDELLINERAKO METRO UNITATEAK

- 3 kotxeko 13 unitate.
- CAFek **lehendik ezagutzen zuen bezeroarekin** lortutako kontratu berria.

650M€  
inguru



### / DISTANTZIA ERTAIN ETA LUZEKO TRENAK FRANTZIARAKO

- Bezeroak **gauzatutako zabalkuntza-aukera** da eta SNCFren eta CAFen artean 2019an sinatutako lehen kontratu handian jasota zegoen.
- 22 Intercités tren (Oxygène izenekoak).
- Fabrikazio osoa **CAFek Reichshoffenen duen lantegian egingo da eta horrek 2029ra arte bertako lan-karga indartuko du**.
- Hornikuntza gehienez beste 53 unitatearekin **handitzen jarraitzeko aukera** dago.
- Plataforma horrek beste herrialde batzuetara begirako salmenta-ahalmena eskaintzen du.

> 400M€



**KONTRATAZIOA OSO BANATUTA DAGO; BEZERO BATZUEK CAF-EKIN ERREPIKATU EGIN DUTE ETA GAUZA ZITEZKEEN**



## 2024ko 4Hhan iragarri eta sinatutako kontratazio nagusiak - AUTOBUSAK

### / AUTOBUS ELEKTRIKOAK DALARNA ESKUALDERAKO (SUEDIA)

- Keolis Sverige operadore pribatuarekin sinatutako kontratua.
- Hiriko eta hiri arteko mugikortasunerako 46 autobus elektriko. Hauek izango dira ibilgailu horiek:
  - Urbino 12 modeloko 19 autobus elektrikoren hornidura.
  - Urbino 15 LE modeloko 27 autobus elektrikoren hornidura.

### / LIEJARAKO (BELGIKA) AUTOBUS ELEKTRIKOAK

- Urbino 24 modeloko 18 autobus elektriko, artikulazio bikoitzekoak.
- Solarisek orain arte **irabazitako artikulazio bikoitzeko autobusen lehiaketa handiena** da.
- Hornikuntza gehienez beste 27 unitatearekin **handitzen jarraitzeko aukera** dago.
- Gaur egun, CAF Lieja hiriko tranbia garatzen ere ari da.



**BEHAR BAKOITZERAKO ZERO ISURIKO SOLUZIOAK**

### / HIRIKO AUTOBUS ELEKTRIKOAK SEATTLE-RAKO (AEB)

- Seattleko garraio publikoko agintaritzaren nagusiarekin (King County Metro) sinatutako kontratua.
- 4 autobus elektriko:
  - 40 oineko 2 autobus elektrikoren hornidura.
  - 60 oineko 2 autobus elektrikoren hornidura.
- **Ipar Amerikako merkatuak modu espezifikoan diseinatutako zero isuriko hiri-autobusaren plataforman** oinarritutako autobusak.
- Hornikuntza gehienez beste 12 unitatearekin **handitzen jarraitzeko aukera** dago.
- Entregak 2026ko bigarren erdialderako aurrez ikusita daude.




**SOLARISEK IPAR AMERIKAN LORTU DUEN LEHEN KONTRATUA**

# ESKARIEN ZORROAREN MAXIMO HISTORIKOA, 2026KO PLAN ESTRATEGIKOAN AURREZ IKUSITAKO HAZKUNDE HELBURUTIK GERTU DAGOENA

/ GUZTIRA (M€)


Autobusak  
Trenak



Zorroa / Salmentak ratioa	<b>3,7x</b>
Autobusak	1,7x
Trenak	4,3x

	<b>3,5x</b>
	1,6x
	4,0x

/ ZORROAREN AZKENALDIKO BILAKAERA (M€)





ESKARIEN ZORROAK HAZTEN JARRAITZEN DU  
(+% 52 vs 2021)

>7.000M € GAUR EGUNGO ZORROAN JASOTA EZ DAUDEN ETA **ETORKIZUNEAN ESLEI DAITEZKEEN AUKERATAN.**

**ETORKIZUNEKO SALMENTEN IKUSGARRITASUN HANDIA**  
(Zorroa / Salmentak ratioa = 3, 5x)



# EUROPAKO ZORROAREN PISUAK HAZTEN JARRAITZEN DU (MUNDUKO MERKATU IRISGARRI HANDIENA)

/ ZORROAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%), 2024



- Zorroak aurrera egin du **jarduera-lerro guztietan**.
- Oraindik ere **tren-ibilgailuek** osatzen dute eskarien zorro bateratuko erdia baino gehiago.

/ ZORROAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA (%), 2024



- Espainiako kontratazio handiak handitu egin du **Europak** eskarien zorroan duen **pisua** eta % 76koa da.
- **APACen eta munduko gainerako tokien zorroa txikitu** egin da urteko salmenten exekuzio handia dela eta.



# URTEKO PLANA BETE EGIN DA. BI DIGITUKO HAZKUNDEA, MARJINAREN AURRERAPENA ETA EMAITZEN HOBEKUNTZA NABARMENA.

(milioi eurotan)	2023	2024	Ald. 2024/2023
<b>NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA</b>	<b>3.825</b>	<b>4.212</b>	<b>+% 10</b>
<b>USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT</b>	<b>179</b>	<b>216</b>	<b>+% 21</b>
<b>EBIT Marjinaren %</b>	<b>% 4,7</b>	<b>% 5,1</b>	
Finantza arloko emaitza	(44)	(52)	% 19
Finantza-sarrerak	28	25	-% 10
Finantza-gastuak	(69)	(68)	-% 2
Trukeko edo kanbioko aldeak	(5)	(9)	+% 101
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	1	0	-% 133
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundearen emaitza	<b>6</b>	<b>(3)</b>	<b>-% 155</b>
<b>ZERGEN AURREKO EMAITZA</b>	<b>141</b>	<b>161</b>	<b>% 14</b>
Irabazien gaineko zerga	(48)	(53)	+% 10
Zergen ondorengo emaitza garbia	92	108	+% 17
Interes minoritarioak	3	4	+% 39
<b>ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA</b>	<b>89</b>	<b>103</b>	<b>+% 16</b>

Aurrera jarraitu du Taldearen **hazkunde-joerak bi negozioetan** oinarrituta.

**Ustiapen-emaitzan 216M€ sortu dira (+% 21)** negozio-zifra handiagoa izateari eta errentagarritasunak izandako bilakaerari (ehuneko +0,4 puntu) esker.




**Egonkortasuna finantza-gastuetan.**

Hori guztia kontuan hartuta, **erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza garbia 103M€-koa izan da**; hau da, **hedapena % 16koa** da.

**Akzio bakoitzeko irabazia ere zenbateko berean handitu da: +% 16.**

# BI DIGITUKO HAZKUNDEA SALMENTA BATERATUETAN, URTEAREN HASIERAN IRAGARRITAKO AURREIKUSPENEKIN BAT EGINDA


## SALMENTAK



# TREN ARLOKO JARDUERA GUZTIEK ALDEKO EKARPENA EGIN DUTE


## TREN ARLOKO SALMENTAK

### / TREN IBILGAILUAK




**Hornikuntza-proiektu adierazgarrienak** SNCFrentzako (Frantzia) eskualdeko trenak, Regiolis (Frantzia) eskualdeko unitateak, Etihad Railentzako (EAU) distantzia luzeko trenak, Myanmarrerako trenak eta Docklands Railentzako (Erresuma Batua) metroak izan dira. Guztira, urteko salmenta guztien **heren bat** ordezkatzen dute.

### / ZERBITZUAK



Salmentek **gorakada handia** izan dute zerbitzuen jarduerak toki hauetan izandako igoerari lotuta: **Eskandinaviako herrialdeak** (Euromainten bidez), **Erresuma Batua** (azken urteotan sinatutako zerbitzu-kontratu batzuen bidez) eta **Brasil**.

### / SOLUZIO INTEGRALAK ETA SISTEMAK



Soluzio integralen eta sistemen salmentek, **beste urte batez, % 30 inguru egin du gora.**


**Mexikoko proiektu integralek** bultzatu dute gorakada horren zati handiena; dena den, **seinaleztapeneko** jarduerak ere gorakada handia izan du eta, **urteko urterako datuetan, % 37 hazi da.**




# SOLARISEK AUTOBUSEN ENTREGAK UGARITU DITU, ETA ZERO ISURIKO ETA ISURI BAXUKO GAMAREN PISUA SENDOTU DU

## AUTOBUSEN SALMENTAK

### / ENTREGATUTAKO AUTOBUS KOPURUA



### / ZORROKO AUTOBUS KOPURUA



#### Zero isurpenak

Autobus **elektrikoen** %  
(elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak)

**% 53**

**% 53**

Sofistikazio handiagoko mixa (H<sub>2</sub>-ko 259 autobus, vs 81 2023an)

**% 77**

419 H<sub>2</sub> autobus biltzen ditu

Trolebusen %

**% 14**

**% 12**

**% 11**

#### Isuri baxuak

Autobus **hibridoen** %

**% 15**

**% 18**

**% 4**

**Emobility** autobusen **GUZTIZKO** %  
(zero isurpenak eta isurpen baxuak)

**% 82**

**% 83**

**% 92**

Entregen bolumenari dagokionez, urteko laugarren hiruhilekoan errekorra lortu ondoren, Solarisek 2024rako exekuzio-plana bete eta **% 5 handitu du entregen bolumena**. Hori guztia aurrez ikusitakoarekin bat dator.

Zero isuriko autobusek entregen guztizko kopuruarekin alderatuta duten proportzioa ez da aldatu datuak 2023koekin alderatzen baditugu (**% 53**), baina osaera aldatu egin da; izan ere, **entregatutako hidrogeno bidezko autobusen bolumena hirukoiztu egin da** 2023ko datuekin alderatuta (259 vs 81, 2023an). Horrek agerian utzi du Solarisek zero isuriko autobus konplexuak **gauzatzeko garaian dituen lidergoa eta gaitasun teknologikoa**.

Erreketak alternatiboko autobusen ehunekoa, **oraindik ere, % 80ren gainera** dago urtean zehar izandako entreei (% 83) dagokienez.


12 herrialdetako bezeroei entregatutako autobusak. Italia, Polonia, Alemania, Errumania, Suedia eta Espainia izan dira 2024an entregatutako flota gehienak jaso dituzten herrialdeak.

Zero isuriko gamaren errekorreko proportzioa eskarien zorroan.

# SOLARISEN LIDERGO HISTORIKOA EUROPAN ZERO ISURIKO HIRI AUTOBUSE TAN

## AUTOBUSEN SALMENTAK

**ZERO ISURPENENKO HIRI AUTOBUSEN EUROPAKO MERKATUA (ELEKTRIKOAK ETA HIDROGENO BIDEZKOAK<sup>1</sup>)**



**2024AN, ZERO ISURIKO HIRI AUTOBUSEK EUROPAK IZANDAKO BARNERATZE TASA % 48KOA<sup>1</sup> IZAN DA.**

**2035EAN EROSITAKO HIRI AUTOBUSEN % 100EK IZAN BEHAR DU ZEROO ISURPENENKOA.**


**SOLARISEK POTENTZIAL HANDIA IZANGO DU EUROPAK HURRENGO HAMARKADAN.**

<sup>1</sup>Iturria: DVV Media Group. Guztira erregistratutako autobus kopurua: 11.945. Horiematik, 5.732 autobus dira zero isurpenekoak. MMA > 8t. EB27 (Erresuma eta Irlanda kanpoan utzita, Solarisek ez baitu herrialde horietan partaidetzarik), Norvegia eta Suitza.


# EMAITZAREN ETA MARJINA OPERATIBOAREN AURRERAPEN HANDIA URTEAREN BIGARREN ERDIAN

EBIT (M€) eta EBIT marjina (%), urtekoa eta sei hilez behingoa

Autobusak<sup>1</sup>  
Trenak




2023




2023ko 1SH

2023ko 2SH



2024



2024ko 1SH

2024ko 2SH

**Taldearen EBITa % 21 handitu da, 216M€ arte.**

Segmentuka:

Trenak:

Urteko exekuzioan zorroko proiektu batzuetan gertatu den kostu-gorakadak eragina izan da, planean aurrez ikusita zegoen moduan.

Urteko emaitzan ere eragin negatiboa izan du ekitaldiaren hasieran ERP berria abian jarri izanak.

Autobusak:

Urtean zehar, **EBITa eta errentagarritasuna nabarmen hobetu** dira.


Inflazio osteko prezioak dituzten kontratuetarako entregek gorakada handia izan dute.

Entregen sasoikotasuna (bolumenaren efektua) eta mix-a direla eta, 2024ko 2SHan marjina hobetu egin da, eta joera horrek 2025ean iraun egingo duela aurrez ikusi da.


<sup>1</sup>Zehaztutako autobusen EBIT datuak dagoeneko deskontatu du CAF Taldearen Solarisen erosketako amortizazioa (6M€/urtean, gutxi gorabehera).

# KUTXA POSITIBOA SORTU DA 2024AN, BIGARREN SEIHILEKOAN IZANDAKO SENDOTASUNARI ESKER

BRIDGE EBITDA-CASH FLOWA (M€)



CASH-FLOWA (M€)




**2024KO 2SH-AN ZIRKULATZAILEAK IZANDAKO HOBKUNTZARI ETA EMAITZA HANDIAGOARI ESKER, NABARMEN KONPENTSATU DIRA FINANTZA ORDAINKETA ETA CAPEX HANDIAGOAK**




## BALANTZE SENDOA, PALANKA RATIOAREN JAITSIERAREKIN

(milioi eurotan)	2023/12/31	2024/12/31
Aktibo finkoak	1.371	1.268
Zirkulatuzailean egindako inbertsioa	(74)	(11)
<b>Aktibo garbia</b>	<b>1.297</b>	<b>1.257</b>
Ondare garbia	868	896
Finantza Zor Garbia	256	226
Beste aktibo eta pasibo batzuk	173	135
<b>Ondarea eta pasibo garbia</b>	<b>1.297</b>	<b>1.257</b>



# ZIRKULATZAILEAREN KONTROL HANDIA BI NEGOZIO LERROETAN



**Zirkulatzailea kontrolpean 2024ko amaieran.**

Segmentuka:

Trenak:

**Egonkortasuna** 2024an zehar jarduerak gorakada izan arren.

Kontratazio berriari lotutako aurrerakinek ekarpen positiboa izan dute 2024ko 2SHan.

Autobusak:


Urtean zirkulatzaileak izandako **kontsumoak** bereizitako bi aldi izan ditu:

- 2024ko 1SH: zirkulatzailearen gorakada **fabrikazioko ramp-up-aren ondorioz**. Entregak egonkortu egin dira 2024ko 2SHan
- 2024ko 2SH: jaitsiera **entregen bolumen handiagatik** eta gorakada **abian den fabrikazioaren batez besteko prezio handiagoa** dela eta (zorroaren mixa) 2024. urtearen amaieran.


**ZIRKULATZAILEAREN KONTSUMO BOLUMEN TXIKIA HAZKUNDE HANDIKO TESTUINGURUAN**

# ZOR GARBIAREN JAITSIERA ETA FZG/EBITDA RATIOAREN HOBEKUNTZA

/ FINANTZA ZOR GARBIA (M€)




/ FINANTZA ZOR GORDINA<sup>1</sup> (M€) Epemuga



**EPE LUZERAKO ZORRAREN BIRNEGOZIAZIOA, EPEMUGAK HANDITUTA ETA KOSTUA GUTXITUTA**



/ LIKIDEZIA (M€)



**FINANTZA POSIZIO SENDOA ETA LIKIDEZIA HANDIA ESKURAGARRI**

<sup>1</sup>Kreditu-erakundeekiko zor gordinari egiten dio erreferentzia.

# DIBIDENDUA HANDITZEKO PROPOSAMENA EMAITZAREN BILAKAERAREN ARABERAKOA DA, 2026KO PLAN ESTRATEGIKOAN JASOTA DAGOEN MODUAN



**GERO ETA ORDAINKETA HANDIAGOA AKZIODUNARI**

<sup>1</sup> Honela kalkulaturik: Akzio bakoitzeko dibidendua / Urteko batez besteko kotizazioa.

<sup>2</sup> 2024ko ekitaldira zordundutako akzio bakoitzeko dibidendu gordinaren proposamena 2025eko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzearen mende dago.




**/3**

# BURTSAKO INFORMAZIOA



# CAF-EKO AKZIOEN BALIOA % 7 IGO DA 2024AN ETA % 30eko POTENTZIALA DU <sup>1</sup>


## CAF-EN BILAKAERA VS IBEX ETA SEKTOREA<sup>2</sup>



## BURTSAKO ADIERAZLEAK

	2024/12/31
Burtsako kapitalizazioa (eurotan)	1.198.112.212
Akzio kop.	34.280.750
Azken kotizazio-prezioa (eurotan)	34,95
Gehieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	37,75
Gutxieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	31,10
Negoziatutako bolumena (milaka akzio)	6.863
Negoziatutako eskudirua (milaka euro)	232.923

## AKZIOEN EGITURA



<sup>3</sup> % 3ko partaidetza edo handiagoa duten, edo paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertitzaileak biltzen ditu (Iturria: CNMV). Likidezia-kontratuari lotutako autozorroko akzioak ere barne hartzen ditu.

**EZ DA MUGIMENDU ESANGURATSURIK IZAN CAF-EKO AKZIODUNEN ARTEAN**

<sup>1</sup> 2025eko otsailaren 3an. Iturria: Factset.

<sup>2</sup> Sektorearen bilakaera hurrengo lau lehiakideen batezbesteko bilakaerarekin neurtzen da: Alstom, Stadler, CAF eta Talgo.





**/ 4**

# JASANGARRITASUNA



# CAF-EK AURRERA EGIN DU 2026KO PLAN ESTRATEGIKOAREN JASANGARRITASUNeko ARDATZA GARATZEN<sup>(1)</sup>

## / JASANGARRITASUNA DA ESTRATEGIAREN ARDATZA

**/ JASANGARRITASUNeko GIDA PLANA ARGITARATU ZEN<sup>(2)</sup> MATERIALTASUN BIKOITZEKO AZTERKETAKO** EMAITZARI ERANUNEZ. HORI GUZTIA EFRAG-EN IRIZPIDEEN ETA JASANGARRITASUNeko INFORMAZIO RAKO EUROPAKO ARAUEN (NEIS) ARABERA EGIN ZEN.

**/ FINANTZAKETA BERDEAREN ETA JASANGARRIAREN LEHEN ESPARRUA<sup>(2)</sup>** ARGITARATU ZEN.

**/ FUNTSEZKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZAKO EKITNZAK**, ADMINISTRAZIO KONTSEILUAZ ETA JASANGARRITASUNeko BATZORDE ESTRATEGIKOAZ GAIN.

**/ KUDEAKETA EREDUA INDARTU ZEN JASANGARRITASUNeko POLITIKA** EGUNERATUTA ETA MENDEKO BESTE POLITIKA BATZUK <sup>(2)</sup> ABIAN JARRITA.

**/ SBTi-K ISURIAK GUTXITZEKO HELBURUAK BALIOZTATU ZITUEN**

**/ S&P GLOBALEN 2025EKO JASANGARRITASUNeko URTEKARI** ENTZUTETSUAK ESPAINIAKO 31 ENPRESA JASANGARRIENETAKO BAT IZENDATU ZUEN.


**HIRUGARREN INDEPENDENTE BATEK JASANGARRITASUN TXOSTENA EGIAZTATU** DU, JASANGARRITASUN KORPORATIBO ARLOKO INFORMAZIOARI BURUZKO ZUZENTARAUAK (CSR) XEDATUTAKOA BETEZ. AIPATUTAKO EGIAZTATZE-LAN HORREK, CNMVK ETA ICACEK HALA GOMENDATUTA, 11/2018 LEGEAK XEDATUTAKO ALDERDI OSAGARRIAK ERE JASOTZEN DITU.

## / EMAITZAK<sup>1</sup>

### / ISURPENEN MURRIZKETA


(2019ko urtea oinarritzat hartuta)

1&2 Irismena



-% 29,3

3 Irismena  
(produktuaren erabilera)




-% 33,1

### / EUROPAKO TAXONOMIA


(Negozio-bolumena)

Hautagarritasuna



% 97,1

Lerrokatzea



% 82,1

### / KALIFIKAZIO AGENTZIAK

(alderaketa egin dezakegun beste lehiakide batzuen batezbestekoaren gainetik)

MSCI

AA

SUSTAINALYTICS

Arriskua Baxua

ecovadis

79 Urrea

CDP  
DRIVING SUSTAINABLE ECONOMIES

B

S&P Global

60

<sup>(1)</sup> Informazio gehiago dago eskuragarri eranskinetan jasota dagoen Jasangarritasuneko Aginte Koadroan edo sozietatearen webgunean ([www.cafmobility.com](http://www.cafmobility.com)) argitaratutako 2024ko Jasangarritasuneko Txostenean.

<sup>(2)</sup> Dokumentuak webgune korporatiboko ([www.cafmobility.com](http://www.cafmobility.com)) Jasangarritasuneko atalean daude eskuragarri.




**/5**

# AURREIKUSPENAK




# 2025AN, HAZKUNDEA GERTATU, ERRENTAGARRITASUNA HOBETU ETA DFN/EBITDA RATIOA EGONKORTU EGINGO DIRELA AURREZ IKUSI DA

/ 2025<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Ikuspegi horiek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoaren egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

# 2026RA BEGIRAKO HELBURUAK BERRETSI DITUGU

/ 2026<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Aurreikuspena nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoaren egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen da, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

A photograph of a business meeting in progress. Several people are seated around a table, looking at and pointing to data on tablets and laptops. The scene is dimly lit, with a blueish tint, suggesting a professional and focused atmosphere. The text '6 ERANSKINAK' is overlaid on the left side of the image.

# 6 ERANSKINAK

# IRAGARRITAKO ETA ESKARI ZORROAN SARTUTAKO KONTRATUAK 2024KO URTARRILETIK ABENDURA BITARTEKO ALDIAN

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK	ZENBATEKOA
2024ko 1HH	Qbuzz	Herbehereak	Trenak / Tren-ibilgailuak	Civity aldiriko 10 trenen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	-
2024ko 1HH	Kolonia	Alemania	Autobusak	Hidrogenozko 20 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	-
2024ko 1HH	Île-de-France Mobilités	Frantzia	Autobusak	Hidrogenozko 22 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	-
2024ko 2HH	Oslo	Norvegia	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 20 unitateren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai, gehienez 90 unitate gehiago	> 150M€
2024ko 2HH	Madrilgo Metroko 1. lotea	Espainia	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 40 unitateren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai	~ 400M€
2024ko 2HH	Erroma	Italia	Autobusak	354 mild-hybrid eta GNK autobusen hornikuntza, eta mantentze-lanetako zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai	> 200M€
2024ko 2HH	Nobina	Suedia	Autobusak	88 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 50M€
2024ko 2HH	Omaha	Estatu Batuak	Trenak / Tren-ibilgailuak	6 tranbia hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai, gehienez 29 unitate gehiago	~ 50M€
2024ko 3HH	Erroma	Italia	Trenak / Tren-ibilgailuak eta zerbitzuak	20 tranbiaren hornidura eta 5 urteko mantentze-lanak	Luzapena	Berria ez	Bai, gehienez 61 unitate gehiago	~ 70M€
2024ko 3HH	ADIF	Espainia	Trenak / Soluzio Integralak eta Sistemak	Seinaleztapen-sistemen hornidura sare konbentzionalerako, zabalera metrikorako eta abiadura handirako	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 150M€
2024ko 3HH	Kerpen	Alemania	Autobusak	Hidrogenozko 26 autobusen hornidura	Luzapena	Berria ez	Ez	> 30M€
2024ko 3HH	Martin Uher	Txekiar Errepublika	Autobusak	Hidrogenozko 10 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2024ko 3HH	Belfort	Frantzia	Autobusak	Hidrogenozko 8 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria	Ez	
2024ko 3HH	Transdev - Utrecht	Herbehereak	Autobusak	96 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai	~ 90M€
2024ko 3HH	Arriva - Brabante	Herbehereak	Autobusak	30 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2024ko 4HH	Bolonia	Italia	Trenak / Tren-ibilgailuak	33 tranbia hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai, gehienez 39 unitate gehiago	-
2024ko 4HH	Palermo	Italia	Trenak / Tren-ibilgailuak	14 tranbia hornitzea	Luzapena	Berria ez	Bai, gehienez 21 unitate gehiago	~ 130M€
2024ko 4HH	Amsterdam	Holanda	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 13 unitateren hornikuntza	Luzapena	Berria ez	Bai, gehienez 17 unitate gehiago	
2024ko 4HH	Madrilgo Metroko 2. lotea	Espainia	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 40 unitateren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 400M€

(hurrengo orrialdean jarraipena)




# IRAGARRITAKO ETA ESKARI ZORROAN SARTUTAKO KONTRATUAK 2024ko URTARRILA-ABENDUA ALDIAN

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK	ZENBATEKOA
2024ko 4HH	Medellín	Kolonbia	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 13 unitateren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 200M€
2024ko 4HH	Txileko Santiago	Txile	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 6 unitateren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2024ko 4HH	Keolis Sverige	Suedia	Autobusak	46 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 80M€
2024ko 4HH	Lieja	Belgika	Autobusak	18 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai, gehienez 27 unitate gehiago	
2024ko 4HH	Seattle	AEB	Autobusak	4 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	-
2024ko 4HH	SNCF	Frantzia	Trenak / Tren-ibilgailuak	Distantzia ertain eta luzeko 22 trenen hornidura	Luzapena	Berria ez	Bai, gehienez 53 unitate gehiago	> 400M€

# ONDARE GARBIA BRIDGE-A

(milioi eurotan)



<sup>1</sup>Akzioko 1,11€-ko dibidendu gordin arrunta jasotzen du (2024ko uztailean ordaindutakoa).

# KUDEAKETA ARDURATSUKO AGINTE KOADROA

ADIERAZLEAK	Erreala 2024	Balorazioa 2024	Helburua 2024	Helburua 2025	Helburua 2026	Helburua 2030	Helburua 2045
CO2 isuriak gutxitzea. 1&2 irismena (oinarritzat hartutako urtea: 2019, SBTi) <sup>(1)</sup>	% 29,3	●	% 21,0	% 25,2	% 30,0	% 55,0	Net Zero
CO2 isuriak gutxitzea. 3 irismena (produktuaren erabilera) (oinarritzat hartutako urtea: 2019, SBTi) <sup>1</sup>	% 33,1	●	% 30,5	% 35,3	% 40,0	% 55,0	Net Zero
CDP jasangarritasuneko balorazioa	B	●	A-	A-	A-		
UE taxonomiarekiko lerrokatuta (negozio-bolumena)	% 82,1	●	% 82,0	% 84,0	% 84,0		
Maiztasun-indizea	13,8	●	14,0	13,8	13,5		
Bezereen asebetetze-balorazioa (1/10)	8,0	●	7,9	7,9	8,0		
Erakundearen osasun-indizea(1/10)	6,7	●	6,7	6,8	6,8		
Sustainalytics-en jasangarritasuneko balorazioa	Arrisku txikia	●	Arrisku txikia	Arrisku txikia	Arrisku txikia		
MSCI-ren jasangarritasuneko balorazioa	AA	●	A	A	A		
S&P-ren jasangarritasuneko balorazioa <sup>(2)</sup>	60	●	66	68	70		
Ecovadis-en jasangarritasuneko balorazioa	79	●	75	75	75		



(1) SBTik (Science Based Targets Initiative) balioztatutako helburuak

(2) Batez ere Agentziak ezarritako eskakizuna handitu delako helburua bete ez duen arren, CAF berriro ere S&P Globaleren 2025eko Jasangarritasuneko Urtekarian sartu da. Aipatutako agentziak baloratzen du CAFek jasangarritasunarekiko eta komunikazio gardenarekiko duen konpromisoa.

# ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2024ko Urteko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) eta sozietatearen webgunean ([www.cafmobility.com](http://www.cafmobility.com)) dago irakurgai, 8. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



# AGENDA

## / HITZALDIAK ETA ROADSHOW-AK

- / 2025eko martxoak 4 → 2024ko emaitzen ondorengo Roadshowa (Madril). Bestinver Securities.
- / 2025eko martxoak 5 → 2024ko emaitzen ondorengo Roadshowa (Paris). Santander Banking.
- / 2025eko martxoak 10-11 → 2024ko emaitzen ondorengo Roadshowa (Italia). Caixabank BPI.
- / 2025eko martxoak 11 → 2024ko emaitzen ondorengo Roadshowa (Zurich). Santander Banking.
- / 2025eko martxoak 12 → 2024ko emaitzen ondorengo Roadshowa (Frankfurt). Santander Banking.
- / 2025eko martxoak 13 → J.P. Morgan European Opportunities Forum (Londres).
- / 2025eko maiatzak 20 → Nice Conference (Niza). Bernstein.

## / EMAITZEN ARGITALPENA

- / 2025eko maiatzak 8 → 2025eko1HHko emaitzen argitalpena

### Harremanetarako: Akziodunentzako eta Inbertitzaileentzako Arreta Bulegoa

J.M. Iturrioz, 26 20200  
Beasain - España

Teléfono  
+34 943 18 92 62

Email  
accionistas@caf.net

### Harpidetza-zentroa:

<https://www.cafmobility.com/eu/akziodunak-inbertsoreak/informazio-orokorra/kontaktua/>



